

EUSKAL ANTZERKI ZAHARRENAK

*Txomin Peillen**

Egungo kritikaren ustekizunak

Huna zer dioten sartaldeko euskaldun kritikalariek:

“(El Acto para la Nochebuena en el siglo XVIII).. *es la primera composición teatral vasca de que hay noticia.*

(Luis Villasante: *Historia de la literatura vasca*, Ed. Sendo Bilbao, 1961, 121.orrialdean).

Eta bide hortatik doa Gabriel Aresti, dionean:

“*Esan dot lelengo teatruzko lana dala, euskeraz eskribidutakoa; eztaki-gu nos eskribidu zan, baña Azkueren testigantza ontzat artzen bardin badogu, konklusioe onetara allegau bear dogu nos emon zan inprentara... 1898.an, orduan ia berreun urte eukazala (..)*” (“Gabonetako ikuski-zuna” *Euskera*, Bilbao 1959, IV. 139.orrialdean).

Beraz bi idazleen ustez, nonbait XVIII mendeko lehen urtetan idatzien Barrutiak bere antzerkia. Idatz eskola batek, alegia herrikoi eskola bilbotarrak hartu du antzerki hori eredutzat eta horregatik hain mespretxatua izan baita, orain mytu bihurtu dugu. Ez zaigu, ordea ahaztu behar antzerki hori, desertuan lorea bezala garatu dela. Julio de Urquijo-k RIEV-en bere “Del teatro Litúrgico en el País Vasco. La Passion Trobada de Diego de San Pedro”, Paris-Donostia 1931, 150. orr. eta beste, saio sakonean erakutsi digu nola XVI-XVII mendean erdal antzertia Euskal Herrian ematen zen, eta beharbada noizpeinka galdu ditugun euskarazko puxkak, hala nola Bergarako *auto*-bat 1631, Bilbokoa 1566ean, nahiz ez den esaten zer hizkuntzatan den, “Corpus Christi”-z emandako antzerkia.

Ez dugu uste Barrutiaren antzerkia Euskal Herriko lehena denik, ez aipamen aldetik, ez testu aldetik. Aipamenaren aldetik ihardoki genezake Aita Moret-en jakilegoa daukagula; harek baitio Nafarroa Garaian, Iruñean, Joanes Labriteko ta Nafarroako Katalinaren koroatzean antzerkiak eman zirela 1494.urtean eta euskaraz kantatu zela:

Oharra: 1981.eko Irailaren 25ean, Donostian, Euskaltzaindiko batzarrean, Piarres Xarritonek irakurria.

*Labrit eta errege
aita seme dirade;
Kondestable jauna
Ar bizate anaie.*

(In *Anales de Navarra*, tomo 5, libro XXXV, cap. 4, p. 74)

Beharbada Urquijo jaunak RIEV-en (op. cit. 152. orrialdean) duda bat sortzen du, ez ote ziren euskal intremesak, erdal antzerki batean aipatutako koplak. Huna hegoaldetik eta sartaldetik ditugun lekukotasunak.

Zuberotar antzerkiak: trajeria ta astolasterrak

Urte askotan Zuberoako pastorek ez dute, euskal literaturazko liburuetan sartzerik izan, nahiz euskaraz idatziak izan, nahiz benetako teatrua izan, ehunka, milaka ikusleak biltzen dituztelarik aspaldidanik Antzerti hori, gure klasikua izatetik baztertzen duena, lehenik euskalkiaren berezitasuna da, bigarrenik gaiak ez-euskaldun izatetik. Azken akats hori Europako klasiku gehienei egoitz genezake, zeren frantses idazle gehienek gaiak Euripides, Aiskhuloren ederra dramatikatasunaren asmaketak emanaz. Nork ukatzen die Corneille ta Racine idazle izatea? Naski pastoralak bat irakurtzea, bereziki trajeria, ez da gustagarri, baina benetako antzerkia ez da irakurtzeko egina, ikusteko baizik.

Orainarte pastoralak aipatu zituen lehena Agosti Chaho (1836.an) atarraztarra izan zela uste zen ta hala dio Albert Leon-ek:

“Si après Augustin Chaho, à qui il faut laisser le mérite d’avoir le premier, à ce qu’il semble, fait connaître l’existence de ce genre de spectacles en dehors du cercle étroit de leurs acteurs et de leurs spectateurs; (op. cit. II. orrialdean).

Pariseko Bibliothèque Nationale-an orainarte lo egon den Jusef Egiategiren filofosofia liburuan, *Filosofo hüskaldüna* delakoan hau hatzeman dut:

“Mündü güzia ari delarik txarlatanen gisala, pastoraletan mozorroa bethi begithartian nahi girade agertü”
(op. cit. 1780. urtean argitaratzekotan, *Esterratziaz*, kapituluan).

Beraz Egiategi da, dakigunez lehena zuberotar antzertia aipatzen, batere gauza berria bezala, baina xehetasun harrigarria ekartzen digularik, bere garaian, bere denboran pastoralak mozorrotuta, maskatuta ematen zirela. Beste leku batean ikusten dugu nola zerbait ez den aldatu jokulariak jende xehea dela, gure egunetan bezala:

“Gaiza hek dirade mündüko pastoralak: eztireia komediant halakoak errege ta trükader izanik, beren galtza mutxetara (oharra: artzain jantzietara) ta lürretara ethortzen (oharra: itzultzen) ta errege zena atzo herrestan egün (op. cit. *Herioaz* kapituluan).

Beste leku batean pastoralak ez direla bakan dio:

“*Eta zü aita aspaldian ikhusten eztüzia zure semia dela auhertü? Lana diala hügünt, merkhatu, eliza besta ta pasterala bakoitzari hütsik egiten eztiala* (op. cit. Auherkeriaz (alperkeriaz) kapituluuan).

Pastoralen onharpen ta ezaguketa bidean, Gabriel Aresti-k egin du lehen urratsa, *Kaniko ta Belxitina*, “astolasterra” argitaraziz, liburuaren hitzaurrean baitio:

“*Pastoral honen argitarazioarekin Lur editorialeak beste zerbitzu bat errendatu nahi ukan dio Euskal Herri xehearen kultura propioari, ea nolabait kultura mespretxatu horrek, euskal edo pseudo-euskal oligarkiak eta burjesiak hain zapaldu horrek, bere gauzatze eta bururatzeko osoari bide bat aurkitzen dion.* (Kaniko ta Belxitina, Ed. Lur Kriselu 18, Donostia, 1971, 18.orrialdean.)

Ez dugu uste, pasterala osoki herri-xehearen antzerkia denik, gaiak goi mailakoak ditu, hizkuntza —zaharretan— ez da herrikoia, ikusleak eta jokulariak bai herrikoak dira. Ikus dezagun antzerki hori noizkoa den, hona zer dion Arestik:

“*..ezagutzen den pastoralik zaharrena, 1759.urtean eman zen estrainaldiz Kamou-n (sic) eta Ediporen tragedia izan zen*” (Op. cit. Ed. Lur Kriselu 18, Donostia 1971, 14.orrialdean).

Gure iturri argiena Albert Leon dugu:

“Il est cependant un point que ces inscriptions (de dates de représentations) nous permettent d'affirmer; la plus ancienne qui nous soit connue portant la date de 1759, nous apprenons dès lors l'âge minimum du théâtre tragique souletin. Il est vrai que Buchon dans un article du *Mémorial des Pyrénées* (2 novembre 1839) donne l'année 1500 comme la date certaine d'un manuscrit qu'il acheta à J. P. Saffores, nommément un manuscrit de la pastorale de Clovis, en même temps qu'il mentionne Bordet (d'Allos) comme étant un auteur de pastorales qui vivait vers la même époque.”

(A. Leon, *Hélène de Constantinople*, H. Champion, Ed. Paris, 1909, p. 69).

Ezin dezakegu duda Bouchon, eskuidazkiaren adina gatik engana zitekeala, Frantziako Zahartaro Ikerketen buruzagia baitzen. Zoritxarrez obra hori galdu egin da. Beste bidez pastoralei adin bat ipintzen ibili behar dugu. A. Leon-ek berak erakutsi digu (ip. cit. 90.orr.) nola *San Luis*, 1512.urteko frantses liburu batetik eta *Helena*, XV.mendeko beste batetik zuzenki moldatu zirela. Halaz ere eskuen artean ditugun pastoralak XVIII. eta XIX.mendekoak dira gehienak. Naski, gure antzerki xumeek ez dute XX.menderate argitaratzeko faborerik izan eta tintaren ahultzeak, paperaren txarrak, zizka ta pipien lanak, arratoien haginak lagun, batzu galdu dira, asko berriro

kopiatu. Testuen kopiatzea ulertzeko, jakin behar da Zuberoan pastoralek arrakasta handia izan dutela, *saltzen zirela, prestatzen zirela*. Ama gurearen aitona Beñat Goihen “Bentaberri” Larrainekoa, pastoral erakusle “errejent” zen. Ama gureak ikusi ditu haurtzaroen nunbait 1900.urte inguruan, bere aitaren logelan zintzilikan eta biribilkatuak, hogeiren bat pastoral. Zoritxarrez aitona alkilatzen baldin bazituen, amaren aitak emaiten, bat zait gelditzen, eta Pariseko Bibliothèque Nationale-ra jo behar dut, besteen ikusteko.

Hunekin ekarri nahi ditudan proba berriak hizkuntzezkoak izanen dira. Adibidetako Jean Saroihandy-k aldatu *Errolanen tragedia*, “Bulletin des Lettres, Sciences, Arts et d’Etudes Regionales” delakoak Baionan 1927.an zbkI-2, emana, hartuko dugu:

“au verset 150 nos quatre mss sont d’accord pour dire *nourequi* au lieu de *enequi* et au vers 309 *neure doloria* se trouve à la fois dans L. et B. M. Azcué (sic) enregistre une forme *neure* qui a certainement existé en Soule comme en Biscaye, mais elle aurait passé à *noure* sous l’influence de *goure* et de *çoure*. Elle n’est pas employée aujourd’hui et nous ne le conservons pas dans le texte” (op. cit. 110.orr.).

Zer jakintza ikerbide da hau? Orain ez delakotz aditzen testu zahar batean hitz itxura bat, berriagoa jarri. Saroihandy-k jarraitzen du:

“La forme *heoure (heure)*, répondant à *neoure (neure)* enregistrée par M. Azcué existe dans B. au v.183 “*heure phenez*”, nous avons suivi la leçon de L. “*hire phenez*”, qui est conforme à l’usage actuel mais A et C disent tous deux *ore phenez*. Ils sont d’accord pour employer la même forme au v.86 qui est exclusivement fourni(e) par eux: *ore espedientzia* au v.137, *orequi* (L et B disent *gourequi*) au v.155 *orequi* encore (L dit *hirequi*) et enfin au v.276 *ore tradicionie*, tandis que L et B écrivent *hire tradicionia*, comme nous l’avons fait (..) (op. cit. 110.orrialdean).

Frantses testu hontan ikusten denetz, L eta B. esku idazkiak XVIII. mende azkeneko ta XIX.hastapeneko izanikan ere, aldatzaileak ez dituzte *nureki* ta *oreki*, behar bezala ulertu, lehenak ordukotz “norekin” esan nahi baitzuen eta bigarreña *gureki(n)* endelegatu baitute. XVII.mendean Oihenartek *neure* ta *heure* erabiltzen ditu baina ez du garaiko zuberoceraz idazten, Tartasek, ordea, bai ta azken horrek ez du *neure*, *heure*, *nore*, *nure*, *ore* itxurarik erabiltzen 1666.urtean, ez eta ere Martin Maister-ek 1756.urtean. *Ore*, *nure* XVII.mendean galdu badira ez da dudarik *heure*, *neure* lehenagotik, hamaseigarren mendean. Hala pentsatzen du Saroihandy-k diorean:

“quoi qu’il en soit des remarques que nous venons de faire, il est vraisemblable qu’entre la date des plus anciens manuscrits de la pastorale et la date inconnue où elle a été composée, il a pu s’écouler un temps fort long, pendant lequel des changements ont été peu à peu apportés au texte primitif” (...).

La langue *tout en conservant beaucoup d'archaïsmes*, n'a pas laissé de se moderniser et souvent les formes les plus anciennes sont employées à côté des formes les plus récentes. Ce qui montre que le travail d'adaptation ne s'est fait que d'une façon très lente et qu'il est loin d'être complètement achevé. Qui pourrait dire sur combien d'années il a pu s'échelonner? Personne, croyons-nous, ne songerait à s'étonner si le hasard permettait d'établir que la pastorale de *Roland* est l'une des plus anciennes du répertoire basque et qu'elle a été composée dans la première moitié du XVI^e siècle. (op. cit. 21.orr.).

Adibidea bezala gure ikerlariak ekartzen du ahapaldi bat zeinean protestantismua aipatzen duen:

*Guk kasatü tügü heresiak, heresiak Frantziatik
Eta nahi düütügü kasatü, Moruak Turkiatik,
Gük nahi dügü süstengatü, Jesü Kristen legia
Eta iñoranter erakats erreljioneko egia.* (op. cit. 21.orr.).

Albert Leon-en *Helena Konstantinoplakoa* liburuan, ikusten dira, hortan erabiltzen den aditz sintetikuaren forma batzuk XVII.mendean Zuberoan galdu direla hala nola *eraman* aditzarenak (ikus. *nola darramak thenpora* 126.orr.) baita XVIII.mendean galdu diren *egon*-en aditz itxurak (ikus *idekirik diaudetzü bethi*, 268.orr.) (*aspaldin so naukozü*, 270.orr. *Jinkoari bihotzez dagonena* 284.orr. *lotsaz ikharaz zaguela* 301.orr.) de mème pour *ebil* (*pasetian gabiltzazü* 313.orr.). Aditz tankera horiek guziak, gaur, ez dira bate-re endelegatzen Zuberoan:

Eta huna zer dion A. Leon-ek (op. cit. 513.orr.)

“Ces formes témoignent dans la rédaction primitive d'un âge relativement ancien et antérieur au manuscrit où on lit la date de 1804, qui conserve des traces beaucoup moins nombreuses que les autres manuscrits des formes dont je parle” (...)

“...quelques exemples de la forme *ore*, inusitée en Soule depuis un siècle (...).

Albert Leon-ek dio XVIII.mendeko dela *Helena Konstantinoplakoa*, baina erakutsi dugu nola *ore*, XVII.mendeko zuberotar idazleen lumatik galdu zen. Beraz gaien arabera, uste dugu pastoralak sailka ditzakegula:

– XV(?)-XVI.mendeko lehen pastoralak; garaiko “üskara” erabiltzen dutenak lekuka, kopiazaileek batzuetan gaurkotuak, oraikotuak: *Clovis* (1500 ekoa), *Errolan*, *San Luis* erregeren bizitzak; Ordeñu Zaharreko, *Abraham ta Moisa*; sailduen bizitzak *San Antoni*, *Santa Katalina*, *Santa Klara*, *Santa Grazi*, *Santa Margarita*, *San Aletsis*, eta *Jon Done Petiri*., beharbada.

– XVII-XVIII.mendean, Troyes-ko Bibliothèque Bleue delakotik hartu gaiak agertzen dira: *Joana d'Arc*, *Champania-ko Tibald*, *Aimunen lau*

seme, Alexandro handia, Kazmirako printzesa, Joanes Caillabit, Edipa, Celestine de Savoie, Robert le Diable, Santa Jenebiba. eta beste...

- XIX.mendean Frantziako Edestiaren gaiak, *François Ier, Napoleon Ier, le Consulat* eta beste. Mendearen bigarren erdian egin direnak.
- XX.mendean, “Etxahun” Iruri, ta “Harigile” Santa Grazi, pastoralak idazleekin Euskal Herriko Edestia, gure antzerkiaz buruzagitu da.

Horiekin guztiakin pastoralak ez da euskal literaturan osoki onhartua nahiz Gabriel Aresti-ren ondotik, Euskaltzaindiak gure trajediaren merezimenduak ezagutu dituen Toribio Alzaga antzerki saria Joanes Casenave Harigile-ri emanaz, baita aspaldian Hegoipahal pastoral errejentak, Etxahun. Iruri zana ta Aita Casenave pastoral idazleak urgazle bezala hautatuz.

3. Zuberoatik kanpo, Iparraldean

Ez dut hainitz sinesten Zuberoan bakarrik izan dela XVI.mendeaz gozotik antzerkirik. Oihenartek idatzi du, *Artzain Gorria* izeneko antzerki ederra XVI.mendean Donibane Garazin eman zela; badakigu Nafarroa Beheran, Amikuzen bereziki zuberotar pastoralak eman zirela, eta idazlerik ez bada izan errejentak bazirela. Uste dut Lapurdin eta Nafarroa hortan antzerki bat izan dela eta osoki galdu dela; beharbada de Lancre sorginen persegitzen hasi zelarik jendeek euskal paperak, eta liburuak erre zituzten, beldurrez sorgin bezala erre zetzaten. Aita Piarres Lafitte-k, Jean Variot-en *Théâtre de tradition populaire* delakoan Marseille-n 1942.urtean emana ta 113.orrrialdean holako antzerki baten frantses itzulpena aurkitu zuen 1890.an Elemir Bourges, frantses idazleak Donibane Lohitzunen entzuna. Antzerki hori komedia laburra da, entremesa, Napoleon-en euskal tragedia baten ondortik emana: (*Gonzalve* edo *Ostatu betea*, Gure Herria, Baiona, 1970).

Geronek, Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan, César Duvoisin abadearen frantsesezko “Tableau des Mœurs des Basques” testua kopiatzen ari ginelarik, esku idazkiaren beste buruan ta alderantziz aldatu kantu bilduma batean, holako antzerki baten zati batekin topo egin dugu eta zatia euskaraz dago. Hain zuzen lapurtar euskaraz dago. Zatiak izenburutzat, frantsesez hau dakar, badirudi Duvoisin-en eskutik: *Chant tiré d'un drame inséré en partie dans l'Atheneum français par Francisque Michel*. Nere ustez aipatu lana “*Lettres à M. P. Mérimée sur les représentations dramatiques dans le Pays Basque*, Athenoeum français, 9 déc. 1854, pp. 1.133-1.134; 27 janv. 1855, pp. 86-88. iturria du eta hau da:

| | |
|----------------------|----------------|
| Nik ez dirot erran | airera |
| nik ez dirot pentsa | zeruetara; |
| bihotzean zer dudan. | neroni banoha |
| Oi neure hatsa | harekin batean |
| doidoia badoha | airean |

Su handi batek
erretzen ari nau;
baditu hanbat gau,
ithoren nautela
hasgorapenak
nigarrek

Jaungoiko handia
zuri dautzut hela
zure esku ezta
heda
diezadazula
nik bezala
sofritzen duenik
ote da!

Leku beherenetarik
gorenetara,
banabila
zure bila
zeruetara
altxatzen ditut
begiak
ixurtzen ditut
nigarrezko ithurriak
zure lehiaz.

Heien kariaz
othoizten zaitut
hel zakizkit.
Badakit
zu gabe
ez dela
Oi ene jabe
handien artean
handi zarena
zorionik munduan.

Oi zure gana
ereman nezazu
nik ez dut mundupean
aurkitzen ahal sosegurik
Banitu bi hegala
altxatzeko
leku hontarik
airatzeko.

banindoake
zure aldera
aingeru bake
dohatsura
oi Jinko handia
zeruko nausia
urrikal zaite
ene ahalgabeari,
hel zaite
zure haurrari!

Aingeruek

Sosegu harzazu,
arriba gaixoa
zure amodioa
heldu izan zaiku
lili eztiaren
usainaren pare
kontsola zaite
zure bila gare
etorriren.
Ortziriak karraskatzen dueno
Jinkoaren hatsak hura hil arteraino
Harzazu sosegu,
othoizten zaitugu,
ez duzu
gu baino
gehiago
elkar besarkatzeko
lehiarik.

Eramanen zaitugu
gurekin
zeruetarik
jausten garenean manuaekin
arriba gaixoa
gure bozkarioa
orduan, ditake
handia!
Zeruko loria
izar argiaren pare
dirdiratuko da
heltzen zarenean
gure erdira
parabisura
Jinkoaren aldarera.

Gehienez lapurdiko euskara da, baina sortaldeko euskalkien kutsuarekin: *dirot*, *dezaket*'en ordeztu, *Jinko*, *Jainko*'ren ordeztu. *Hel*, "sokorro" bezala erabiltzen da, baita "iritxi" bezala, ere.

Hil dei ederra, erromantikutasunez bete, euskara ederrean, baita olerkitasun egokian, koplak bakoitzean zerua, airea, begiak aipatzen dira, ta airearen irudiak hegalarrena ekartzen du, aingeruak ager arteraino; pertsu aski libreak, piko askeek ez dute bertsolari lanekin zer ikusirik. Holako ondarrak ez gaituzte kontsolatzen galdu egin denaz, ez eta orain egiten ez dugunaz.

Ikerlan labur honekin errautes batzuek harrotu nahi izan ditut; nere aldetik pentsatzen dut, Nafarroa Garaia, Beherean, Lapurdin, Zuberoan euskal antzertia izan dela, XVI.mendea dena nahiz azken horrez baizik ez dugun, aipamenez kanpo, testurik. Baliman zoko batean edo bestean, antzerki ondarrak aurkituko da, euskalari ta euskalzaleri hori opa diet, zeren olerki ta kantuekin antzerkia gure literaturaren haserakoa izan baita.